

Bidebieta

Bizikletan eta arraunean aritzeko areto hobe eske

Kiroldegiko gimnasia joan ohi diren 119 lagunek idazkia helarazi berri diote Kirol Patronatuko zuzendaritzari. Idazkian, bizikletak, arraunean egiteko makina eta hankak trebatzeko makina lekuz alda ditzaten eskatu dute.

Bidebietako kiroldegia 90eko hamarkadan zaharberritu zuten. Igerilekua, saskibaloia eta eskubaloia edo areto futbot zelai bana, aldagelak, aerobic gela, gimnasioa eta bost frontoi txiki egin zituzten. Gimnasioari da-

gokionez, muskulazio-makinekin batera, bizikletak eta arraunean egiteko makina jarri zituzten.

Aireztapenik gabeko aretoa

Orain dela bost bat urte,

gimnasioa txiki geratu zen. Horregatik, goiko solairuko frontoi txikietako bat eraldatu eta bertan bizikletak, arraunean egiteko eta hankak trebatzeko makinak eta luzatze-arietak egiteko koltxonetak jarri zituzten. Ordutik hona, behin baino gehiagotan areto horretan aritzen direnak kezatu dira eta joan den astean, idazki bat bidali dute Kirol Patronatura. Areto horretan kiroltik ezin dela egin diote erabiltzaileek: *"Areto txiki horretan zenbait unetan jende asko elkartzen da, hortaz, garbiketak egungoak baino sakonagoa behar du izan. 20 metro karratu eskas ditu eta aireztapen ezagatik, izerdia eta usain txarrak pilatzen dira."*


Agiriaren sinatzaileek bizikletak, arraunean egiteko eta hankak trebatzeko makina ai-



Zuhaitz zati bat eskaileretan

Duela aste batzuk, zuhaitz zati bat menditik Bidebieta eta Azkuene kalearen arteko eskaileretara erori zen. Bistan denez, zuhaitz horren adarrek bidea oztopatzen dute.

reztapena duen areto zabalgo batean jar dezatela, eta bide batez, bizikletak berritu ditzatela eskatu diote Kirol Patronatuari, *"egungoak zaharregiak direlako"*.



"Nouvelle Vague"-ri buruzko ikastaroa

Kontadores: Gaztelekuak eta Donostia Kulturak "Nouvelle Vague" zine mugimendu frantziarrari buruzko ikastaroa antolatu dute. Ostegunero, azaroaren 13tik abenduaren 18ra arte, film bat pantailaratuko dute. Besteak beste, Francois Truffaut, Jean-Luc Godard eta Claud Chabrol zinegile entzutetsuen filmak emango dituzte. Ikastaroa egiteko 18 euro ordaindu behar dira.



Gaizki jarritako zaborrontzia

Errotondako lanak direla eta, Bidebieta eta Trintxerpe arteko bigurutzeara txukundu dute azken hilabeteotan. Hala eta guztiz ere, leku desegokian dagoen zaborrontzian ez dute lekuz aldatu. Zaborrontziak aldapa jaisten duten gidariak Trintxerpetik datozen autoak ikustea eragozten die. Hori dela eta, aldapa jaisten duten autoek errepide erdira atera behar dute, Trintxerpetik autorik ote datorren ikusteko, arriskua eraginez.

